



# Osasuna Politika Guztietan

**BATZORDE TEKNIKOA**



Txosten  
sektoriala **2020**

**Lurralde Plangintza**

2022ko otsailaren 7an



*Euskadi, auzolana*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD



# Lurralde Plangintza

Txosten honen bidez, Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Sailburuordetzak —Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren baitan dagoenak— 2020ko ekitaldian osasunarekin lotutako alderdiei buruz burututako lanak biltzen dira:

## 1. LURRALDE PLANGINTZA: LURRALDE ANTOLAMENDUAREN GIDALERROAK (LAG), LURRALDE PLAN PARTZIALAK (LPP), LURRALDE PLAN SEKTORIALAK (LPS).

2019ko uztailetik indarrean dauden Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG) dira erreferentziazko esparru orokorra lurralde eta hirigintza arloko plangintzarako gainerako tresnak formulatzeko, eta esparru horretara egokitu behar dira administrazio publikoek gara ditzaketan, eta lurraldean eragina duten planak, programak eta ekintzak. Dokumentuan **Osasuna Zeharkako Gaiaren 10. kapituluko atal propio gisa sartu da (10.4 atala), eta Aplikazio Arauen 19. eta 32. artikuluetan**. Sartu den hori dokumentuaren gainerako edukira ere iristen da, ereduari arloko sentsibilitatea emanez, eta sentsibilitate hori lurralde eta hirigintza arloko plangintzara eraman behar da, dokumentuan adierazitakoa betez.

LAGen garapenean, hainbat plangintza-tresna berrikusten hasi dira, eta horiek adierazten dutena kontuan hartu behar dute (osasunaren arloa barne):

- **Lurralde Plan Partzialei (LPP)** dagokienez, Bilbo Metropolitarrakoak eta Arabako Errioxako eta Araba Erdialdeko eremu funtzionaltakoak

---

berrikusten ari dira. Horien artetik, Sailburuordetzak lankidetzaz hitzarmen bat sinatu zuen Arabako Foru Aldundiarekin, Arabako Errioxako eta Araba Erdialdeko LPPakegiteko. 2020an, Aurretiazko Azterlanak eta Diagnostikoa egin ziren, eta baita Araba Erdialdeko LPPko Paisaiaren Katalogoa ere. Bi lan horiek Sailburuordetzak kontratatuta egin ziren. Aurretiazko Azterlanetan eta Diagnostikoan, osasun-zerbitzuen eskuragarritasunaren ohiko analiziaz gain, osasunaren arloko prebentzio-osagaia erantsi zen, eta bizitza osasungarria bilatu zen lurralde antolamenduaren bidez.

Gai horiek jada antzematen dira jarraian aipatzen den xedez egindako lanetan: herritar guztiek komunitateko zerbitzuak eskura izateko, horietarako sarbidea izateko eta erabiltzeko aukera berdinak izateko; osasun arloko desberdintasun sozialak murrizteko, edo jarduera fisikoaren, mugikortasun aktiboaren edo elikaduraren bitartez bizi ohitura osasungarriak sustatzeko. Nolanahi ere, adierazi behar da Araba Erdialdeko LPPren Berrikuspena 2020 urte amaieran kontratatu zela, eta berrikuspen horrek aurretiazko diagnostikoan identifikatutako helburu orokor horietan sakondu behar duela.

- **Lurralde Plan Sektorialen (LPS)** artean, aipatzekoa da Itsasertzaren LPSren Berrikuspena, Plana klima-aldaketara egokitzeko egin zena. 2020an Aurretiazko Azterlanak eta Diagnostikoa egin ziren, EAEko Itsasertza Babestu eta Antolatze LPSa berrikusteko eta klima-aldaketaren erronkara egokitzeko; Aurretiazko Azterlanetan identifikatutakoa garatzen duten Berrikuspena eta Egokitzapena 2021etik aurrera egiten ari dira.

## 2. EAELAB BATZORDEA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO BATZORDEA

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aholkularitza- eta koordinazio-organo goren da, Lurralde Antolamenduaren, itsasertzaren eta hirigintzaren arloan.

Osasuneko sailburuordea, titularra den aldetik, eta Osakidetzako zuzendari nagusia, ordezkaria den aldetik, Batzorde horren kide dira. Batzordearen eginkizuna da, besteak beste, EAEko hirigintza eta lurralde antolamenduari buruzko espedienteen berri ematea.

---

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Politikarako Aholku Batzordea Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari atxikitako partaidetza organoa da, eta Eusko Jaurlaritzaren lurralde politikaren beharrezko koordinazioa bermatzen du, eta baita parte hartze soziala egotea ere, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde antolamenduan. Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzeko ordezkari banak osatzen dute, eta horiekin batera beste hainbeste pertsona daude, proposamen oinarrituak egin ditzaketen eta, beren esperientziarekin, Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean erabilerak eta jarduerak antolatzen eta ezartzen lagun dezaketen sektore sozial, ekonomiko eta profesionalak, edo ingurumenen eragina dutenak ordezkatzuz.

Kontseilu horretan, Osasun Sailaren ordezkari dira Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuordea, titular gisa, eta Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako zuzendaria, ordezeko gisa. 2020an zehar ez zen bilerarik egin.

### 3. EUSKALHIRIA KONGRESUA 2020

EuskalHiria Kongresua, euskal hirien eguna, urtero egiten da Euskadin 2002tik. Urtero egiten da, azaroaren amaieran, eta hiriari buruz eztabaidatzea sustatzen du, Euskadiko testuinguruan; gai zehatz baten bidez hirien erronka eta aukerei heltzen zaizkie. 2020ko edizioa birtuala izan zen lehen aldiz, osasun-egoerak behartuta, eta Kongresuak mundu osoan gora egiten ari den joera bat aztertu zuen, euskal hirietan ere garrantzitsua dena: biztanleriaren zahartzea.

2020ko kongresuaren izenburua honako hau izan zen: **“Guztionezako hiriak: zahartzea eta gizarteratzea”**; hasteko, galdera hau egin zuen: Adinekoak barne hartzea: zergatik da garrantzitsua hiriaren garapen jasangarrirako?; eta gaiari honako arlo hauetatik heldu zien: espazio publiko segurua, etxebizitza, mugikortasuna eta **osasuna eta zaintza**.

### 4. HIRI AGENDA ETA HIRI BERRONERATZEA

Aurreko txostenetan aipatu den bezala, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 77/2017 Dekretua onetsi ondoren, Hiri Berroneratzeko Zerbitzu berria sortu zen. Lurraldearen antolamenduaren ikuspegitik, auzo zaugarrien

---

berroneratzeari ikuspegi zabalagoa eman nahi zitzaion, bizitegi-eraikinaz beraz harago, eta lurraldean esku hartzeko modu berri horri bultzada bat eman nahi zitzaion, kontuan har daitezten, batetik, eremuen arteko lurralde-oreka eta, bestetik, eremu babesgabetuenetan bizi diren pertsonen bizi kalitatea. Esku-hartze eskala eraikinetik ingurura edo auzora zabaldu zen, eta ikuspegi eraikitzaile edo urbanistiko batetik ikuspegi holistikoago eta, sektoreei dagokienez, anitzago batera zabaldu zen. Horrekin lotuta, 2017an hainbat ekimen abiarazi ziren.

Horretarako, hiri-berroneratze integrala kontuan hartzeko funtsezko oinarrietako bat osasunaren arloko elementu erabakigarriak dira. Zaila da bereiztea zein jarduketek duten zuzeneko lotura osasunarekin; izan ere, Hiri Berroneratsetik abiarazitako proposamen eta ekintza gehienak, zeharka bada ere, elkarren artean lotuta daude eta ikuspegi holistikoa izan behar dute eta, hori dela eta, pertsonen bizi-kalitateari eta, ondorioz, pertsonen osasunari eragiten diete.

Horri dagokionez, osasunarekin zuzenean edo zeharka lotuta dauden honako zeregin hauek zehazten ditugu; 2020an horiek lortzeko aurrerapausoak eman dira, eta badaude ere 2021erako aurreikusitakoak ere:

## **EUSKADIKO HIRI AGENDA**

E2017an, Euskadiko Hiri Agenda: Bultzatu 2050 idazteari ekin zitzaion. Horretarako oinarri gisa hartu ziren Bultzatu 2025 eta nazioarteko eta Europako hiri agendak bezalako lanak, bai eta Habitat III konferentziaren Garapen Jasangarrirako Helburuak ere, bereziki azpimarratuz 11. eta 3. Helburua, honako hau diotenak: 11. Helburua *“hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea”*; 3. Helburua, *“Osasuna eta ongizatea”*. Horretaz gain, Basque Country 2030 Agendaren ildoak ere jarraitu zen.

Lan bateratu hori beste administrazio, erakunde eta aditu batzuekin (unibertsitateak eta ikerketa zentroak, enpresak, klusterrak eta gizarte eragileak) egindako parte hartze zabalaren emaitza da, eta 2019ko azaroaren 19an eman zuen fruitua, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak Euskadiko Hiri Agenda -Bultzatu 2050 onetsi zuenean. Dokumentu horrek, bere aldetik, txertatuta du genero ikuspegia, hasierako faseetatik, horretaz arduratu baitzen *“Genero ikuspegidun hiri berroneratzea Euskadiko Hiri Agendaren esparruan. Bultzatu 2050”* izeneko Gida, bai esparru teorikorako,

---

bai agendatik eratorritako ekintzetarako; 2020an amaitu zen lana, eta Sailaren webgunean ere argitaratuta dago.

NBE-HABITAT erakundearen eskutik, 2020an zehar, lan egin zen beharrezko jarraipena eta ebaluazioa egiteko ezarpen- eta monitorizazio-prozesuak garatzeko; prozesu horien ezagutza eta hedapena sustatzeko ekintzak eta jarduerak bultzatu ziren, eta antzeko ekimen batzuekiko esperientzia eta ezagutza trukean sakondu zen, Hiri Agendaren ezarpenean inplikaturik dauden nazioko eta nazioarteko erakundeekin lankidetzan. 2021era begira, ildo berean lan egiten jarraitzeko asmoa dugu.

2021. urteari begira, **Hiri Behatokia** garatu nahi da, kontraste-prozesu baten bidez, erkidego, estatu eta nazioarte mailako sareetan eta lantaldeetan sartuz eta horien parte hartzearekin, haren edukia eta irismena ebaluatu eta finkatu ahal izateko; halaber, udalerrriak inplikatu nahi dira, politika eta plan integratuak ezarri eta abian jar ditzaten, honako hauek sustatzeko: inklusioa, baliabideen erabilera eraginkorra, klima-aldaketa arintzea, klima-aldaketara egokitzea, eta hondamendien aurreko erresilientzia. Horrez gain, hondamendi-arriskuen kudeaketa integrala maila guztietan praktikan jar ditzaten nahi da, Hondamendi Arriskua Murrizteko Sendai esparruarekin bat etorrituz.

Azkenik, esan behar da COVID-19ak ekarri duen egoerak areagotu eta agerian utzi dituela lehendik zeuden gabeziak eta beharrak, eta inoiz baino gehiago mahai gainean jarri duela gure hiri-ingurunearen ERRESILIENTZIAren kontzeptua, eta baita “Hiri Jasangarrien” ideia eta horien beharra ere, jasangarritasuna zentzu guztietan ulertuz.

## **LII PLANA: EUSKADIKO LURRALDE INBERTSIO INTEGRATUKO PLANA**

2020an zehar, “Euskadiko Lurralde Inbertsio Integratuko Plana” (LII, 2017an formulatu zena) garatzen eta gauzatzen jarraitu zen, esperientzia pilotuak abian jartzeko bidean aurrera egiteko, auzo eta eremu zaugarrietan esku hartzeko mekanismo eta prozesu integralekin. Plan horrek bilakaera bat izan du, eta Euskadiko eremu zaugarrien Hiri Berroneratze Integraleko proiektuaren bidez zehaztu zen, zeina Euskadi Next 21-26 programaren barruan sartzen baita.

---

## AUZO PILOTUAK

2017an hasi ziren Txomin Enea (Donostia) eta Txonta (Eibar) auzoetako esku hartzeak, eta 2018, 2019 eta 2020 urteetan jarraitu zuten. Osasun krisiaren bilakaerak zenbait atzerapen eragin zituen aurreikusitako lanetan, berroneratze-programaren aurrerapenean erabakigarriak diren erabakiak hartu ahal izateko pertsonak elkartzeko egon ziren zailtasunaren ondorioz.

### **Txomin Enea** (Donostia):

Ejarduketa honek 156 etxebizitzari eta 34 merkataritza-lokali eragiten die, eta District Heating izeneko Europako proiektuarekin lotuta dago. 2018an, bilerak egin ziren inguruko administrazioen artean akordioak lortzeko, auzoan mantentzen diren etxebizitzaren eraikin zahar horiek birgaitzeko beharrezkoak diren obrak kontratatu eta gauzatzeko. Hori guztia dagozkion berrurbanizaziorako eta hiri berrikuntzarako eragiketekin koordinatuta, eremuaren uholde-arriskuak saihesteko. 2019an ekin zitzaizkien lanei, eta 2020an amaitu ziren. Esku hartzearen irismenak barne hartu du fatxadak, estalkiak eta leihoak birgaitzea, eta etxebizitzak auzoko hiri berokuntza eta etxeko ur bero sistemarekin (District Heating) lotzea. Irisgarritasuna hobetzeari dagokionez, bi igogailu berri instalatu ziren.

Eskuhartzeak dakartzan onuren artean honako hauek dira azpimarratzekoak: herritarrentzako konforta hobetzea, urtean 365 egunetan eta eguneko 24 orduetan erabilgarri dagoen berokuntza-zerbitzu batekin; etxebizitzetan arriskuak minimizatzea, eraikinean ez dagoelako inolako errekontza-elementurik; energia-eskaria % 35 murriztea; CO2 emisioak murriztea; eta erabiltzaileek monitorizazio-plataforma baterako sarbidea izatea.

### **Txonta** (Eibar)

Esku hartze horrek 221 etxebizitzari eragiten die. 2018an "Txonta Berritzen" hurbileko bulegoa ezarri zen, langileak zituena, auzoan bertan. 2020an zehar Txontako eraikinak birgaitzeko aurrera eraman ziren jarduketaren garapenari dagokionez, esan beharra dago jabeen erkidego baten obrak amaitu zirela, beste erkidego baten obra esleitu zela eta gainerakoetan proiektu teknikoak berrikusi eta amaitu zirela. Gainera, eskaintzak eskatu zitzaizkien eraikuntza-enpresei, eta 2021 eta 2022an esleitzea eta gauzatea aurreikusi da.

---

Zuzendaritza honek bultzatutako auzoko bulegoari edo "leihatila bakarra"ri dagokionez, esan beharra dago, eraikinak birgaitzeko egindako kudeaketek gain, Eibarko Udalak abian jarritako Txonta auzorako enplegu eta prestakuntza programa espezifikoaren topagunea ere izan dela. Programa hori 2020ko abuztuan amaitu zen eta auzoko 13 langabek hartu zuten parte. Arduradunek programaren balorazio oso positiboa egin dute.

2018an zehar, esku hartzeak jarri ziren martxan beste hiru auzotan: Aramotz auzoan (Durango), Basaundi Bailara auzoan (Lasarte) eta Otxarkoaga auzoan (Bilbo).

### **Aramotz** (Durango)

129 etxebizitza dira guztira. 2019an, auzoko bulegoarentzako lokal bat ezarri zen birgaitu behar ziren eraikinen beraien etxabeetan, auzoan bizi diren pertsonen Herria elkartearekin egindako hitzarmen baten bidez. Lokal hura egokitzeko beharrezko lanak egin ondoren, hurbileko bulego-zerbitzua eskaintzen du Durango Eraikitzen SAUren bidez. Zerbitzu hori, arreta ekonomikoa, teknikoa eta soziala emateaz gain, eta berroneratze proiektu honetarako leihatila bakarra kudeatzeaz gain, bizilagunak ere auzoko bulegoa erabiltzen ari dira beren jardueretarako.

2020an zehar, Aramotz auzoko etxebizitzaren monitorizazioa egin zen, etxebizitzaren barruko tenperatura, hezetasun eta CO2 mailak ezagutzeko. Atari bakoitzeko etxebizitzaren % 10arekin hasi ziren, eta etxebizitza guztiak monitorizatzea lortu zen. Gainera, COVID-19ak ezarritako muga egon zirela ere, atari bakoitzeko bilerak egin ziren, eta eraikinak birgaitzeko proiektua idatzi duen talde teknikoa kontratatu zen, lehiaketa teknikoaren bidez. 2020ko azaroan, Oinarrizko Proiektuaren proposamenak aurkeztu zitzaizkien bizilagunei, bozkatu zitzaizkien eta, ondoren, egikaritze-proiektua gara zedin. 2021ean lanak eraikuntza-entresari esleitzea eta obrak hastea aurreikusten da.

### **Basaundi Bailara** (Lasarte)

eraikin-multzo horrek 151 etxebizitza ditu. 2019 amaieran, auzoko auzo-elkartearen lokaleko obrak amaitu ziren, birgaitu behar zen blokeetako baten etxabeetan, eta ia urtebete darama, 2020 osoa, arkitekto batek bulegoko langile gisa lanean, eta duela gutxi administrari bat sartu da. Halaber,



---

2020an zehar, egin beharreko obra osoaren 16 atarien aurreproiektuak egin ziren, laguntzetan ezarritakoa betez, eta etxebizitzak monitorizatu ziren. Une honetan, aurreproiektu horiek bizilagunei aurkezteko eta laguntzei buruzko zalantzak argitzeko bilerak egiten ari dira. 2021era begira, atari bakoitzeko Jabeen Erkidegoen akordioak lortu nahi dira, bakoitzean egin beharreko proiektuekin hasi ahal izateko.

### **Otxarkoaga** (Bilbo)

Auzo honen tamaina dela eta, alegia, EAEko auzo konplexu eta zaugarrienetako bat izanda, esku hartzea faseka planteatu behar izanda, beraz, lehenengo esku hartze honetan 240 etxebizitzatan lan egin da. 2019an, Otxar Open Gela hurbileko bulegorako lokala eraberritzeko lanak amaitu ziren, eta bulegoan lan egingo duten teknikarientzako kontratua lizitatu zen. 2020an, 3 teknikarik lan egin dute Orain Otxar hurbileko bulegoan. Etxebizitza-blokeak birgaitzeko obrei dagokienez, une honetan, proposatutako 5 blokeetatik,

**lehenak** (Txotena 18-24) bost hilabete daramatza obrak egiten, eta aurreikusten da 8 hilabeteren buruan amaituta egotea;

**bigarrenak** (Larrakoetxe 1) dagoeneko obra lizitatu du eta hura esleitzeko fasean dago;

**hirugarrenak** (Txotena 12-16) etxebizitzak handitzeko proiektuari ekitea erabaki zuen, irisgarritasunerako eta birgaitze energetikorako proiektuei ekiteaz gain. Etxebizitzak handitzeko eta lurzoru publikoa okupatzeko behar diren egikaritze proiektua eta xehetasun-azterlana lizitatu dira, eta une honetan adjudikazio-fasean dago.

**Laugarren** blokeko (Irumineta 24-30) Jabeen Erkidegoaren bilerarako deia egin da, birgaitze-prozesuari ekiteko,

eta, aurten, lehen fase honetako **bosgarren** eta azken blokearekin (Txotena 42-46) hasi nahi da

Blokeetako edo auzoko pertsonak etxebizitzetako obretan enplegatzeko aukerari dagokionez, lehenengo blokeko obren lizitazioaren bidez konpromisobatlortuz eneraikuntza-enpresarekin, 6 pertsona kontratatuzeko

---

eta lanposturako eskatzen zen gutxieneko prestakuntza emateko. Gaur egun, blokeko pertsona bat lanaldi osorako dago kontratatuta, eta, horretarako, hasiera batean, bi enplegu partzial planteatzen ziren: eraikuntzako peoia eta auzotarrekiko komunikazioa, eta beste 4 pertsona kontratatzeko izapideak egiten ari dira. Bigarren blokeko obren lizitazio-oinarrietan irizpide berberak erabili dira, helburu horretarako.

Otxarkoagan egiten ari diren beste proiektuei dagokienez:

- **Estalki aktiboa F merkataritza gunean:** 2020 urte amaieran F merkataritza gunean estalki aktiboa jartzeko eta berreskuratzeko obrak amaitu ziren, 2019an hasitakoak. Proiektu honen bidez ia baztertuta zegoen eraikin bat berreskuratu da, erabiltzen ez den bitarteko espazioa zuena. Auzoan jarduera berritzaileak erakartzeko polo berri bat sortu nahi da erabilera publikoko babestutako gune batekin. Estalki fotovoltaiko aktiboari esker, energia-kontsumo ia nuluko konplexu bihurtzen da multzoa.

Une honetan autokontsumoko mankomunitatea eratzen ari da, eraikinak sortzen duen gehiegizko energia, kontsumoa bera baino handiagoa baita, inguruko etxebizitzaren artean banatu ahal izateko. Proiektu horren bidez, auzoetako autokontsumorako komunitateen ideia zabaldu nahi da, aurten bultzatzen hasi baikara eta 2021ean garatu nahi baita.

- **Etxebizitzak handitzea:** bizitegi-parkearen errendimendua eta erabilera hobetzeko aukera aztertu ondoren, 2019an egin zen etxebizitza-tipologia berrien azterlanaren bitartez, 2020an jabeekin adostu egin zen, Txotena 12-16 etxebizitza-blokearen energia- eta irisgarritasun-birgaikuntzako obrak egingo zirela aprobetxatuz. Handitzeko proiektuaren lizitazioa egin da, eta obra 2021ean zehar egitea aurreikusten da.
- **Otxar Urban Gela ekipamendu berria:** erabiltzen ez zen eraikin bat da, eta, horretarako, eraikina berriz erabiltzea proposatu zen, auzoan prestakuntza eta laguntza jarduerak gauzatzeko eragile gisa. I. FASEAN, 2018an eta 2019an, BBKren eraikin zaharra egokitu zen, proiektu pilotuaren hurbileko bulegoa, auzoko prestakuntza gelak eta erabilera anitzeko gelak bertan jartzeko.

---

LHIEEko (IVAP) “Hiri birgaitzearen eta berroneratzearen kudeaketa” izeneko ikastaro berriaren bi edizio egin dira haren instalazioetan, eta langile teknikoek parte hartu zuten 2018ko eta 2019ko ikastaroetan: 80 inguru izan ziren guztira. 2020an zehar, ezin izan zen ikastaroa egin COVID-19a dela eta. Hala ere, ikastaro hori Lanbiderekin ezartzeko eta homologatzeko prozesuan aurrera egin da.

II. FASEAN, 2021ari begira, ondoko eraikina egokitu nahi da, hori ere ez baita erabiltzen, eta espazioaren egokitzapenarekin osatu nahi da Hiri Berroneratzearen Ikerketa Zentroa; laborategi-ikasgelak ditu, eta bertan unibertsitateek, IVAPek eta abarrek topagune bat izango dute berroneratzearen arloko berrikuntzaren inguruan, eta, aldi berean, hiria berroneratzeko, birgaitzeko eta berritzeko prestakuntza espezializatuko programak garatu ahal izango dira.

## **ETXEBIZITZEK ENERGIARI DAGOKIONEZ DUTEN PORTAERAREN MONITORIZAZIOA ETA JARRAIPENA**

Etxebizitzak monitorizatzearen helburu nagusiak etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzak hobetzeko neurrien eta lanen eraginkortasuna eta efizientzia egiaztatzea bideratuta daude, lanak egin aurretik eta ondoren etxebizitzaren barneko giroaren kalitatearekin lotutako parametro batzuk konparatuz. 2020an zehar, 320 monitorizatu ziren 4 auzo pilotuetan banatuta, eta berokuntza-kontsumoaren parametroak, osasunekoak eta erosotasunekoak barne hartu zituzten: tenperatura, hezetasun erlatiboa eta etxebizitzaren barruko CO<sub>2</sub>.

## **KOORDINAZIO-MAHAIK ENPLEGU SAILAREKIN**

Auzoetako hurbileko bulegoek 4 udalerrietan gizarteratze-sistemak koordinatzeko tokiko mahaien proiektu pilotu batean parte hartu zuten 2020an, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzak sustatuta. Pilotu horrek bigarren fase bat izatea espero da, pertsona zaugarrienak gizarteratzen laguntzen duten sistemak koordinatzen eta indartzen jarraitzeko.

---

## **H2020, OPENGELA EUROPAKO PROIEKTUA. AUZOKO BULEGOAK: TEKNIKARIEN FINANTZA TRESNEN INGURUKO PRESTAKUNTZA ETA KUALIFIKAZIOA**

Auzo pilotuak berroneratzeko hurbileko bulegoen proiektua HIROSS4ALL: OPENGELA Europako proiektuaren bidez garatzen ari da. Autonomia, autosufizientea eta independentea izan daitekeen hurbiltasuneko kudeaketa eredu bat garatzea du helburu proiektuak. 2018ko amaieran onartu zuen Europako Batzordeak, eta 2019ko maiatzaren 10ean hasi zen; 36 hilabeteko iraupena du eta 2022ko maiatzean amaituko da.

2020an zehar egin den bezala, 2021ean proiektu europarraren lan entregagarriekin jarraitu nahi da, bi helbururekin:

1. Hurbileko bulego-eredu bat diseinatzea eta ezartzea, etxebizitzak birgaitzeko kudeaketa guztiak bere gain hartuko dituen, eta baita aholkularitza teknikoa ere, laguntzekin eta finantza-mekanismoekin lotutako arlo administratiboan eta kudeaketan laguntzeko. Europako proiektuaren esperientzia pilotuak Txonta eta Otxarkoaga auzoetan jartzen du arreta. Baina beste bi auzotan ere abiarazi zen: Aramotz Durangon eta Basaundi Bailara Lasarten. Horri esker, sistema hainbat auzo eta errealitatetan aztertzeko eta testatzeko aukera dugu.
2. COVID-19keragindako egoera erronka bat izan zen auzoko bizilagunekiko komunikazioari begirakoa, hori baita proiektuaren oinarrietako bat, baita erabakiak hartzeari begira ere; horrek pixka bat luzatu zituen epeak, baina egoera horrek irauten duen bitartean komunikazioari eusteko modua bilatzea lortu zen, eta baita etxe guztien finantzaketa-beharrak betetzea ahalbidetuko duen finantza-tresna berritzaile bat definitzea ere. Definizio horretan aurrera egin zen, eta dagoeneko definitu eta abiarazi dira hitzarmenak udalekin.

## **ZTBP. ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZARAKO EUSKADI 2030 PLANA, AUKERA LURRALDEA ETA "HIRI JASANGARRIAK".**

I+G+b arloko ekintzak integratzearen ikuspegitik, ZTBP-RIS 3ko "Hiri Habitat"aren aukerako lurraldearen lidergoarekin jarraitu da, eta ZTBP 2030en "Hiri Jasangarri" gisa berrizendatu da. Honako hauek osatzen dute lantaldea:

- 
- Jaurlaritzak berak (hainbat Sailekin: Osasuna, Enplegua, Gizarteratzea...) eta haren sozietate publikoek (VISESA, Ihobe, Eve) eta EUDELeak.
  - Euskal Unibertsitateak eta Arkitektoen Elkargoak.
  - Ikerketa eta bikaintasuneko zentroek, hala nola Tecnalia, IK4, Innobasque edo Idom-ek.
  - Honako kluster hauek: Eraikune, Habic, Gaia, Aclima (Ingurumenekoa), Mugikortasunarenak eta Energiarenak.

Sailaren apustua da pilotatze-taldea Euskadiko Hiri Agenda -Bultzatu 2050aren I+G+b euskarria izatea. 2020ko apirilaren 15ean Aholku Batzordea eratu zen.

### **ZTBP EUSKADI 2030, BAI+G+B PROGRAMAKO “HIRI JASANGARRIAK” AUKERA-NITXOAREN HELBURUAK LORTZEN LAGUNTZEN DUTEN PROIEKTU BERRITZAILLEENTZAKO LAGUNTZA-ILDOAREKIN JARRAITZEA**

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2018ko uztailaren 31ko Aginduaren bidez, laguntza-lerro horren lehen deialdia egin zen, Hiri-habitatari lotutako enpresek eta profesionalek hiri berroneratze arloan I+G+b proiektuak garatzeko xedea duen lehiaketa bidezko dirulaguntzarena. Deialdi hau “Hiri Jasangarrien” Pilotatze Taldearen ekintza-ildo estrategiko berriekin lotuta dago. Talde hori Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planeko (Euskadi ZTBP 2030) RIS3 Espezializazio Adimenduneko Estrategikoei lotuta dago.

Hiru urteko laguntza da, eta lehen deialdi honetan 625.000 euroko gehieneko zenbateko ekonomikoa izan zuen, hiru urteetan banatuta. Aurkeztutako 19 eskaeretatik, 2018ko lehen deialdian, 9 hautatu ziren: horietatik 4 Otxarkoaga auzo pilotuan zeuden, 1 Txonta auzo pilotuan eta gainerakoak EAeko hainbat eremutan, baina guztiak estrapolatzeko eta lurraldearen gainerako eremuetan erreplikatzeko modukoak ziren. 2020an eta 2021eko hasieran (osasun egoera dela eta taldeek izan dituzten zailtasunek eragindako atzerapenengatik), lehen deialdiko 9 proiektu onuradun hauek amaitu eta entregatu dira.

2020ko urriaren 7ko Aginduaren bidez, laguntza horren bigarren deialdia egin da. Oraingoan, 400.000 eurokoa izango da gehieneko zenbatekoa, eta 16 eskaera aurkeztu dira, eta 5 proiektu hautatu dira.

---

Entregatutako proiektuetan jorratutako hiri-gaiak askotarikoak dira, horrelakoa baitzen ere laguntza-deialdiaren helburua, hiri-berroneratze integrala: ibilbide berdeak, naturan oinarritutako irtenbideak, osasuna, zaintzak, hiri-argiztapena, zarata, airearen kalitatea, jarduera ekonomikoa suspertzea, etxabeen erabilerak, hiriko esku hartze artistikoak, mugikortasuna, irisgarritasuna, eraikuntza modulatu, birgaitzearen sistematizazioa eta optimizazioa...

Lehenengo deialdian amaitutako proiektuei buruz eta bigarren deialdirako aurkeztutako proposamenei buruz egiten den balorazio positiboa kontuan hartuta, laguntza honen deialdiekin jarraitu nahi da bi urtean behin, proiektu gehiago egiteko zenbateko handiagoekin. Proiektuen gaiak askotarikoak dira, sektore anitzekoak, eta, beraz, ulertzen dugu nolabaiteko interesa dutela pertsonen osasunaren eta bizi-kalitatearen ikuspegitik ere.

## IKERLANAK ETA AZTERLANAK

En el año 2018 se puso en marcha la FASE I mediante los siguientes estudios de investigación:

- **2011ko “Auzo zaurgarrien diagnostikoa” izeneko azterlana eguneratzea:** (Quor enpresaren eta Eusko Jaurlaritzako Kartografia eta Eustaten arteko lankidetzak). Adierazle berriak aztertzea, horien artean Osasun Sailak erabiltzen duen MEDEA indizea. 2019an lana amaitu zen, eta 2020an sailaren webgunean eta GeoEuskadin argitaratu zen.
- **Pobrezia energetikoari eta esku hartzeko aukerari buruzko azterlana:** Kataluniako unibertsitateek (Vallésko Arkitektura Eskola) eta Euskal Herriko Unibertsitateek (Donostiako Arkitektura Eskolako CAVIAR ikerketa-taldea) batera eta elkarlaneangaratutako azterlana da, EAEko parke eraikia ezaugarritzeko lana egin zuena. 2019an lana amaitu zen, eta 2020an baliozkotu egin zen.
- **Bizigarritasuna eta irtenbide tipologiko berriak:** azterlan honek Otxarkoaga auzoko bizitegi-parkearen errendimendua eta erabilera hobetzeko aukera aztertzen du, gizartearen behar eta eskaera berrietara egokitzeko. Azterlan hori 2019an amaitu zen, eta Udaleko Hirigintza arloarekin harremanetan jarri ondoren, egikaritze-proiektuaren esleipena eta Txotena 12-16 blokean etxebizitzak handitzeko obrari

---

ekin ahal izateko eskatutako xehetasun-azterlana izapidetzen ari dira, aurrerago azalduko dugun bezala.

- **Euskal errealitatearen berezitasunetara egokitutako metodologia** bat garatzea, **herritarrek parte eta esku har dezaten**, eta hiri berroneratze integraleko prozesuak bultzatu eta garatu ahal izan daitezten. Lan hori 2019an amaitu zen, eta metodologia proiektu pilotuetan aplikatzen ari da.

Ikerketa proiektuen I. FASEA amaituta dago. Besteak beste, honako hauekin lan egin zen: Deusto Cities LAB katedrarekin, Euskal Herriko Unibertsitateko CAVIAR ikerketa taldearekin, Kataluniako Unibertsitate Politeknikoko, Madrilgo Unibertsitate Politeknikoko, Sevillako Pablo Olabideko eta Madrilgo Autónomako ikerketa taldeekin, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin eta Gizarte Politika eta Enplegu Sailarekin, eta Energiaren Euskal Erakundearekin. Horiek guztiek, hainbat ikuspegitik, auzoak berroneratzeko jarduketan arloko berrikuntzan jartzen dute arreta.

Une honetan, horietako batzuen II. FASEAN ari gara, eta, I. FASEAN amaitutako azterlanetatik abiatuta, **Euskadiko eraikin-parkean epe luzera esku hartzeko estrategia** bat diseinatzen ari gara, egungo problematikari erantzungo dion eta hiria berroneratzeko aukera emango duen **Ekintza Plan** bat artikulatzeko, Euskadiko eraikin parkearen energia-efizientzian eta irisgarritasunean oinarrituta.

Halaber, 2021ean Deustuko Unibertsitatearekin zegoen hitzarmena berritu da, “Deusto CITIES LAB” katedra garatzeko xedea duena, zeinak hiriak eraldatzeko gobernantza eredu eta lidergo estiloen inguruko berrikuntza baitu helburu.

## **EUSKADI NEXT 21-26 PROGRAMA: COVID-19AREN OSTEKO BERRERAIKUNTZA-PROIEKTUAK**

2020an zehar, COVID-19aren osteko berreraikuntza-proiektu gisa aurkeztu den proposamen bat garatu zen, eta Euskadiko Ekonomia Berreskuratu eta Eraldatzeko Proiektu estrategikoetako (PERTES) bat bezala identifikatu zen. Euskadiko lurralde osora hedatutako Ekintza Plan bat sustatzean datza, non esku hartze holistikoak egingo diren, baldintza okerrenetan dauden eremuen zaugarritasun baldintzak lehengoratzeko.

---

## 2020AN HIRIA BERRONERATZEKO AURRERA ERAMAN DIREN ESKU HARTZEK OSASUNEAN IZAN DUTEN ERAGINA

202an aurrera eraman ziren esku hartzeek aurrera egin zuten arren, Eusko Jaurlaritzako sailekin, Lanbiderekin eta udal zerbitzuekin zeharkakotasunez eta modu koordinatuan lan egiten ari den arren —osasunari, inklusioari, genero ikuspegiari, prestakuntzari, enpleguari, ekintzailtzari, jarduera ekonomikoari, mendekotasunari eta abarri dagokienez—, oraindik goiz da LIIPn aurreikusten ziren inpaktuak egiaztatzeko.

## 2021ERAKO HIRIA BERRONERATZEAREN ARLOAN AURREIKUSITAKO JARDUKETA BERRIAK

Pilotu/laborategi auzoetan (Txonta, Otxarkoaga, Aramotz, Basaundi Bailara) hasitako jarduketekin jarraitzeaz gainera (2023an amaituko dira), auzo gehiagotan egingo diren jarduketak sartu eta abiaraziko dira, eta dagoeneko hasita daudenak gauzatuko dira, hiri berroneratzearen ikuspegi integralago batekin.

- **Auzo Pilotu Berriak:** Pasaiako Udalari dirulaguntza eman zaio beste auzo pilotu batekin hasteko: Andonaegi auzoarekin. Halaber, 2021ean beste auzo pilotu batzuk hautatu nahi dira, eta horietan guztietan etxebizitzek energiari dagokionez duten portaeraren monitorizazio eta jarraipenarekin jarraituko da. 2021erako ere, aurreikusita dago hiri berroneratze integralerako proiektu horiek guztiak kudeatzeko, babesteko eta gauzatzeko **erakunde kudeatzailea eratzea**.
- **Jarduketa berriak** hasierako auzo pilotuetan:
  - **Dirulaguntza TENDEL elkarte soziokulturalari, Otxarkoagan hiri berroneratzeke gizarte-programa bat gara dezan,** auzoko haurrentzat eta gazteentzat
  - **Etxebizitzak handitzeko I+G+b Proiektua egikaritzea** Otxarkoagako Txotena 12-16 blokean: gutxienez 50 m<sup>2</sup> inguruko etxebizitzak dira, 2 eta 3 logelako programekin; batzuetan terrazekin handituko dira, eta beste batzuetan etxebizitzarako azalerarekin, sistema modularra erabiliz eta ahalik eta kostu txikienarekin,



---

energia-efizientziarako eta irisgarritasunerako auzoan egiten ari diren birgaitzeko lanak aprobeztatuz.

- **Birnaturalizatzeko eta uraren zikloa kudeatzeko irtenbide berritzaileak txertatzea:** Auzo zaugarrietako eraikinak birgaitzeko jardueren osagarri gisa, eraikinen ondoko ingurunean eta ingurune hurbilean uraren zikloaren izaeran eta kudeaketan oinarritutako konponbiderako ekintzak abiarazi nahi dira. Horretarako, bi aurrekontu partida aurreikusi dira Durangoko Aramotz auzorako eta Bilboko Otxarkoaga auzorako. Durangoren kasuan, jarduketa horiek beste proiektu bati lotuta egongo dira. Proiektu horri esker, gaur egun auzoa alde batetik bestera zeharkatzen duen erreka desbideratu ahal izango da, eta horrek onura handiagoak ekarriko ditu konfort termikoari eta ingurumen-aldagaiei dagokienez, besteak beste. Otxarkoagari dagokionez, Irumineta eta Txotena kaleetan abiarazi nahi dira.
- **Eguzki-panelak ezartzeko eta autokontsumo partekatuko komunitateak** eratzeko proiektu esperimentalak bi auzo pilotutan: Basaundi Bailaran (Lasarte) eta Otxarkoagan (Bilbo), etxebizitza-blokeak birgaitzeko gainerako laguntzekin batera. Une honetan, bi auzoetan panelak jartzeko formulak eta kokapen-aukerak aztertzen ari dira.
- **Hiri Berroneratzearen Berrikuntza Zentroa:** 2021ean eraikina birgaitzeko obra egin nahi da, zentroa Otxarkoagan kokatzeko. Zentro horretako ikerlanetarako oinarriak lantzen ari dira Madrilgo Unibertsitate Politeknikoarekin (GIAU+S taldea eta ABIO taldea), EHUko Arkitektura Saileko Bizi Kalitatea Arkitekturan (CAVIAR) Taldearekin, Kataluniako Unibertsitate Politeknikoarekin, eta UPV/EHUko Osasunaren eta Aldaketa Demografikoaren Determinatzaile Sozialen Ikerketa Taldearekin (OPIK).
- **Opengela Fundazioa eratzea:** Opengela Proiektuari lotutako ekintzekin jarraituko da, leihatila bakarreko bulegoak ezartzeko eta finantza-tresna berritzailea garatzeko; azken tresna horren kasuan, EAE osora hedatzea ahalbidetuko duen negozio-eredua ezarriz. Hori

---

guztia Opengela Fundazioa eratuz eta haren esku hartze eredu hedatuz egingo da, foru aldundiekin eta EAEko udalekin lankidetzan.

- **Prestakuntza programa, Lanbiderekin lankidetzan:** “HIRI BERRONERATZEAREN KUDEAKETA” espezialitateko prestakuntza programa bat diseinatzen ari dira. Espezialitate berri hori lortzeko, Saitetik prestatzen ari diren 200 ordu inguruko prestakuntza ikastaro bat gainditu beharko da. Prestakuntza berritzailea da, eta horrek zailtasunak dakartza arloko prestatzaile kualifikatuak eta adituak lortzeko; horregatik, lehen edizioan, “Hiri berroneratzearen kudeatzaileen trebatzaile” prestakuntza proposatzen da, eta amaierako praktikak auzoko bulegoetan egingo lirateke. Ondoren, irakasle kualifikatu horiek daudenean, espezialitatea Euskadiko prestakuntza zentro guztietara irekitzea proposatzen da..

Aldi berean, auzo pilotuetan enplegu-prozesuak lantzen ari dira, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailarekin lankidetzan, Enplegua Koordinatzeko Mahaien bitartez; horietan, Lanbiderekin bitartez, hiri berroneratzearekin lotutako enplegua bultzatu eta sustatuko da eremu horetan.

Hiri berroneratzearen Kudeaketako espezialitatea arkitekturan, gizarte arloan, zuzenbidean edo ekonomia-arloan unibertsitate prestakuntza duten pertsonen zuzentzen zaie. Dena den, auzoan bertan enplegatzeko prozesuetarako, zaugarri gisa katalogatutako eremu horietan egingo diren eraikinen birgaitzeekin zuzenean lotutako pertsonen prestakuntza planteatzen da.

## 5. GEOEUSKADI. EUSKADIKO DATU ESPAZIALEN AZPIEGITURA MANTENTZEA

GeoEuskadi “Euskadiko Datu Espazialen Azpiegitura (DEA)” plataforman osasunarekin lotutako sailtako hainbat informazio integratzen eta mantentzen ari dira. Besteak beste, farmazien eta botikinen kokapena, kanpoko desfibriladore automatizatuak, hondartzei eta bainatzeko guneen buruzko datuak, kontsumoko urei, hilkortasunari, bizi-itzaropenari eta biztanleriaren osasunari buruzko adierazle sozioekonomikoei (hilkortasun-atlasa) buruzko informazioa.

---

Pandemiaren hasieratik lan egin da COVID-19aren Euskadiko mapa argitaratzeko, Osasun Sailak egunero argitaratzen dituen udalerrikako eta osasun-eremukako datuetan oinarrituta.

Horretaz gain, Eustatekin eta EJI Erek inkoordinatuta, atari mailako geolokalizazioko zeharkako zerbitzuak, biztanleria-entitateak edo udalerriak mantentzen ari dira, osasunarekin lotutako hainbat datu eta estatistika georeferentziaztea ahalbidetzeko.

